



Hondakinen arazoa aztertzeke erakusketa ireki dute Tolosan

SENTSIBILIZAZIOA ▶ Zaborraren berrerabilpena eta murrizketa landuko dituzte 'Hondakinak: amesgaiztorik ez' lelopean urtarrilaren 13ra arte ▶ 5



Ezker-eskuin: Bakarxo Tejeria, Luis Mari Oiarbide eta Jokin Bildarratz, atzo, inaugurazioan. E. EZEIZA

LEITZALDEA ▶

Meteorologia aztertzen duten adituak Leitzan eta Areson

Leitzako Luisen Bordakoak eta Aresoko Otsoaneakoak 20 urte daramatzate bertan lanean eguraldia neurtuz ▶ 7

LEIRE OLABERRIA ▶ TXIRRINDULARIA

«Nire helburua Munduko Kopako probetan aritzea da, nahikoa dut horrekin»

Eustrak-Duranguesado taldearekin ariko da ikaztegiatarra Moskun ▶ 3

VILLABONA ▶

Pirritx eta Porrotxen azken ikuskizuna

Etzi ikusi ahalko da 'Mari Motots' Gurea aretoan eta sarrerak agortu dira dagoeneko ▶ 6



Pirritx, Porrotx eta Mari Motots. HITZA

LIZARTZA ▶

Alondegia ezagutzeko jardunaldien lehen ekitaldiak hasi dira

Donezaren eta Agirrezabalen lanak ikusgai jarri dituzte aste osorako ▶ 4

orange Zure zerbitzura gure denda **ONjby**
dagoeneko zabalik!
Orange
Gemikako arbola 1 • TOLOSA • 943 65 04 00

LITERATURA ▶

Pako Aristiren hitzaldia, bihar, Kultur Etxean

Galtzaundi Euskara taldeak bihar, 20:00etan, literatura hitzaldi bat eskainiko du, Kultur Etxeko 2. solairuan. Pako Aristi izango da, hain zuzen ere, literaturaz luze eta zabal jardungo duena, gai horretaz ere asko dagoela hitzegiteko frogatuz. *Txabola Terapeutikoa* kontakizuna argitaratu du aurten Aristik12 urtetik gorakoentzako. Hitzaldi hauek irakurzaletasuna sustatzeko asmoz antolatzen ditu Galtzaundik, eta orain arte antolatutakoetan, Unai Elorriaga, Kirmen Uribe eta Harkaitz Cano izan dira besteak beste.

KULTURA ▶

Ipuin kontaketa saioa gaur, Errotan

Galtzaundi Euskara taldeak ipuin kontaketa saioa antolatu du Idoia Sanchezen eskutik. Tolosako haur liburutegian, Errotan, eskainiko du gaur, 18:00etatik aurrera, eta 5 eta 8 urte bitarteko gaztetxoek zuzendurikoa izango da emanaldia.

MENDIA ▶

Oderizera irteera antolatu du Alpino Uzturrek

Oderizera mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak. Irteera igande honetan egingo dute, eta ondoren urte bukaerako babarrun jatea egiteko asmoa dutela azaldu dute. Irteerarako izena eman nahi duenak 943 65 27 89 telefono zenbakira deitu beharko da, edota elkartearen egoitzara jo, Gudari kaleko 5. zenbakira.

GASTRONOMIA ▶

Arrakastatsutzat jo dute antolatzaileek 'Txuleta-ren festa'

3.500 lagun baino gehiago erakarri ditu ekimenak, eta 2.500 kilo txuleta prestatu dituzte denera sukaldariek



Jende ugari Zerkausira sartzeko itxaroten *Txuleta-ren festa*ren. MADDI SOROA

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosa «parrila handi bat» bihurturik ikusi dugu estreinakoz pasa den astean *Txuleta-ren festa* berezian. 750. urterrena dela eta omenaldia egin nahi izan dio hiriak bere gastronomiari, eta bereziki erretegiari, bertan sortu baitziren idi txuleten erretegiak. Eta hori izan da, hain zuzen ere, bost egunetan zehar ekimen berezi hau antolatzearen arrazoia; hori, eta Tolosaren izena lau haizeetara zabaltzearena, eta zalantzarik gabe, aurreikuspenak bete dituela adierazi dute antolatzaileek, izan ere, pasa den asteazkenetik igandera arte 3.500 lagun baino gehiago bildu ditu *Txuleta-ren festa*.

Espero zutena baino arrakasta handiagoa lortu du eki-

DATUAK ▶

Hilaren 6tik 10era Zerkausian nahiz festara elkartu ziren Astelena, Botarri, Beti Alai eta Usabal sagardotegia jendez beterik egon dira.

JANKIDEAK

Guztira. 3.500 pertsona bildu ditu *Txuleta-ren festa*ak.
Tolosaldea. %70a.
Gipuzkoako gainerako

menak, eta hori hasi aurretik ere agerian geratu zen; hasiera batean Zerkausian egitekoa zen, eta ondoren Tolosako lau jatetxetara ere festa zabaltzea erabaki zuten nahikoa leku ez baitzegoen bertaratu nahi zuten guztiak sartzeko. Hala, Ro-

herrietakoak, Bizkaiakoak, Arabakoak eta Nafarroakoak. %18a.
Katalunia eta Madrilgoak. %10a.
Beste lurraldeetatik. %2a.

JAKIAK

Txuletak. 2.500 kilo jan dituzte denera.
Ardoa. 1.900 litro edan dira.

berto Ruiz izan da festaren koordinatzailea, eta Divinus Catering enpresak zerbitzatuta, Matias Gorrotxategi (Julian erretegia), Pedro Ruiz (Nicolas erretegia), Juanjo Pascual (Burruntzi erretegia) eta Javier Hualde (Orue erretegia) sukaldariak aritu dira parriletan lanean. Bai Zerkausian, bai eta Astelena, Botarri, Beti Alai eta Usabal sagardotegian ere erretegiatiko ohiko jakiak jateko aukera izan dute hurbildu direnek; hori bai, txuleta izan da jakietan protagonista, dena, Carnicas Goyak zerbitzaturik 2.500 kilo prestatu direlarik. Jaki hauek laguntzeko ardoa izaten da egokiena, eta kasu honetan, Viña Laguardia upeltegiko 1.900 litro kontsumitu dira.

ARRAKASTA HANDIA

Festak hartu duen indarragatik hurrengo urtean jarraipena izan beharko lukeela diote antolatzaileek

Festara hurbildu direnei dagokionez, Tolosaldekoak %70a izan dira, gehiengo nagusia, beraz. Gainerakoak, %18a Hego Euskal Herrikoak izan dira, %10a Kataluniatik eta Madrildik etorritakoak, eta %2a beste herrialdeetatik etorriak. Festak iraun duen bitartean bisitarako hiri bilakatu da Tolosa turista askorentzat, eta gainera, kanpotik etorritako askok eta askok larumbateroko ohiko azoka ezagutu ahal izan zuten. «Askok ekimen honen bitartez lehendabiziko aldiz bisitatu dute Tolosa, eta bertakoentzat, berriz, oso garrantzitsua izan da festa lagunarte alaiak gozatu ahal izan dutelako».

Jarraipenik izango ote du? «Ideiak tradizio handia du herriari, guk ez dugu ezer berririk asmatu», azaldu du festaren koordinatzaileak. Esperientzia bezala, «oso polita» izan dela dio Roberto Ruizek, eta agian jardueraren osagarriak ere izan beharko lituzkeela otorduez gain. Bestalde, aurtengoak izan duen harrera ona ikusita, bere ustez, «hurrengo urtean ere antolatu beharko lituzateke, aurten hartu duen indarragatik soilik hori eskatzen duelako».

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohiza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEIRE OLABERRIA ▶ TXIRRINDULARIA

«Nire asmoa Munduko Kopako probak egitea da eta pozik nago horrekin»

Moskura joango da gaur Eustrak-Duranguesado pistako txirrindularia, asteburuan egingo diren saioak egitera



HITZA

NEREA URBIZU

Leire Olaberria txirrindulari ikaztegiatarrak gaur Mosku aldera joko du, pistako Munduko Kopako bigarren probak egiteko. Eustrak-Duranguesado pistako talde profesionalarekin hasi berria da, eta hainbat baldintza hobetzea lortu du modu honetara.

Moskun zein dira egingo dituzun probak?

Munduko Kopako proba guztietan berdina egiten dira: jazarpena, puntuazioa eta scrach-a. Abiadura da egiten ez den proba bakarra. Berez, nire intentzioa Munduko Kopako probak egitea da eta pozik nago horrekin. Eustrak-Duranguesado taldeak aukera zabaldu dit.

Zein dira arerio gogorrenak?

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Zuk jasotako berriak nahiz iradokizunak idatzi ditzakezu webgunean. Telefono zenbakia eta izen-abizenak beharrezkoak dira, esandakoak kazetariantzat fidagarritasuna izan dezan.

Nik uste dut nahiko irekia dagoela. Bordelen (Frantzia) eginitako lehiaketan frantziarrak ziren indartsuenak, baina honekin ez dut hain argi ikusten. Finalean 20 emakume izango dira eta lehen hamar emakume onenetatik edozeinek ditu aukerak irabazteko, nire ustez.

Zu hamar horien artean al zaude?

Beno, ni indartsu nago. Borroka egiteko moduan ikusten dut neuru burua eta helburua Munduko Kopako lau probak egin ahal izatea da. Momentuz bi egin ditut, eta pozik nago. Lasai nago alde horretatik, ez daukat presarik.

Sydney-en egindakoarekin pozik zaude?

Munduko Kopa horretatik ez nintzen oso gustura bueltatu. Scrach-en 7. egin nuen, puntuazioan 11. Jazarpenekoan 6. iritsi nintzen, baina ez nuen proba gustura egin. Aurreratu ninduenak oso erritimo azka-

rra ezarri zuen eta ezin nuen aurreratu araudiak hala esaten duelako, baina denok oso azkar joatea behartu gintuen. Egin zuena ez da logikoa, bai legala, baina ez da normala. Azkenean brontzea lortu zuen, baina leher eginda bukatu zuen. Hala ere, jakin behar da gaizki egindakoa onartzen eta ikasten. Ez nuen, gainera, kontrakoa ezagutzen; beste baterako bai.

Gustura Eustrak-Duranguesado taldearekin?

Bai, hiru txirrindularik osatzen dugu taldea, Unai Elorriaga, Aitor Alonso eta ni: herenegun aurkezpena egin genuen Bilbon eta pozik nago. UCik onartu du eta talde serio bat izateko gutxiengoak betetzen ditu: souldak, baldintza egokiak...

Sakrifikatua da zure kirola eta elite mailan egoteak eskatzen duena.

Bai, baina nire aukera da. Oso gustura nabil, horrela tokatu da eta neguan da denboraldia. Beraz, ondoren lasaiago ibiliko naiz.

Hurrengo Munduko Kopa noiz izango duzu?

Urtarrilan egingo dugu hirugarren Munduko proba. Los Angelesen (AEB). Azkenekoa otsailan izango da. Azkenik mundiala Mallorcan (Herrialde Katalanak) izango da.

Faltan botatzen al duzu jendea animatzen?

Ez pentsa. Bizikletaren gainean zaudenean beste guztia ahaztu egiten duzu, ez zara gauza horietaz konturatzen. Errusiak eta Italiak adibidez, jarraitzaile asko dituzte.

iragarki laburrak ▶

LANA
Iturgina. Iturgin lanetarako pertsona bat behar da.
656 41 68 08.

SALGAI
Autoa. BMW M3a. 286 zaldi.
14.000 euro. 943 65 41 43.

BESTEAK
Txakurkumeak. Txakurkumeak oparitzen dira. 618 25 49 71.



Nalartea etorb. 11 behe - TOLOSAN
Abg.: 476 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

GIZARTEA ▶

Hiri hondakinei buruzko gidak banatuko dituzte

Abaltzisketan eta Amezketan izango dira

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Mankomunitateak hiri hondakinei buruzko gida informatibo bat egin du: *Nola murriztu ditzaket nire hondakinak? Eta zer egin sortutakoekin?* Bertan, 3 betebeharrak ekologiko dira nagusi: murriztu, berrerabili eta birzikla-

tu. Hala, Abaltzisketan, bihar, Udaletxe azpian, gidak banatzen eta kezka konpontzeko 17:30etik 18:30era egongo dira. Amezketan, berriz, Herriko Plazan, etzi, ordu berean.

Prebentzio neurriez eta bilketaz ere jarduten du bihar eta hetzi banatuko duten liburu-ruxka honek.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

259 biztanlek ezetz esan diote AHT proiektuari



Udaletxean, atzo, bildutako sinadurak entregatzen. N. URBIZU

N. URBIZU

Alegiko udaletxean entregatu zituzten, atzo, AHT proiektuaren aurkako sinadurak. Osozara 259 sinadura bildu dituzte. Beraz, 259 herritarrek, ezezkoa eman diote AHTri. Alegian 107 sinadurarekin nahikoa zen erreferenduma eskatu ahal izateko.

Imanol Artano Alegiko ingurugiroko zinegotziak adierazi zuenez «PTS, edo, Lurraldeko Sektore Plana delakoa Nuria Lopez de Guereñok eramaten du gehienbat. Hari askotan eskatu dizkiogu doku-

mentazioak eta informazioa, baina ez dago modurik». Honen aurrean eta «ahaleginak eginda ere», AHTk Alegian izango lituzkeen eraginak, besteak beste, ez dakizkitez, eta «herriak hori jakiteko eskubidea du».

Oraindik ere, «lan handia» dagoela esan zuen: «Jendea informatu behar da, hau lortzeko zailtasunak izango ditugu, baina herriarentzat oso garrantzitsua da». Izan ere, Artanok esan bezala, «herri-tarren bizi-kalitatea eta ingurugiroa erabat eraldatuko da AHT aurrera eramanez gero».

TOLOSALDEKO HITZAK lan poltsa osatzeko banatzaile/buzoneatzaileak behar ditu Tolosaldean.

LAN-BALDINTZAK :

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 9:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak 943 30 35 33 telefonora deitu lehenbait lehen.

LIZARTZA ▶ KULTURA

Alondegia eta artea elkarlanean

Donezaren eta Agirrezabalen lanak ikusgai dira egunotan ganbaran

MADDI SOROA

Atzo ekin zieten lizartzarrek Alondegia barrutik ezagutzeko egunei. Lehenengo ekitaldia Aranzadiko Juantxo Agirrek eman zuen hitzaldia izan zen eta landu zen gaia *Lizartzako baserrien eta Alondegiaren historia* izan zen.


Era berean, atzo iluntzean zabaldu zuten Sorkunde Agirrezabal eta Pablo Donezaren lanen erakusketa. Aipatu, erakusketa hau Alondegiako ganbaran kokaturik dagoela eta Alondegian antolatutako diren ekintzen egun eta orduetan ikusi ahal izango dela.

Bai Doneza eta baita Agirrezabal ere lizartzarrek dira eta euren lanen zatitxo bat jarri dute ikusgai. Pablo Donezaren kasuan, proiektu bakoitza ideia eta estilo ezberdinez egiten duela adierazi du; hala, argazkia, pintura edota marrazkia lantzen ditu bere lanak gauzatzerakoan.

Donezak Alondegian ikusgai jarri dituen lanen artean hiru multzo bereizten dira erabiltzen dituen estiloari dagokionez. Batetik, argazkiekin egindako muntaiak daude, Lizartzako plazan itsasoa agertzen dena, esaterako. Bestetik, pintura akrilikoz egindako margolanak ikus daitezke. Azkenik, *pilot* axota beltz xume batekin eginiko marrazki ikusgarriak aurki daitezke.

Sorkunde Agirrezabalen lanen kasuan, akuarela da nagusi erabili dituen teknikari dagokionez. Kolore beroak dira erabiliak, laranja eta horiak nagusitzen direlarik. Koadroetako elementuei dagokionez, berriz, emakumea du protagonistatzat Agirrezabalek. Hala, antzinako emakumeak ageri dira biluzik eta lanean.

Alondegia barrutik ezagutzeko, bihar hitzaldia izango da 20:00etan. Bertan izango dira Ordizia, Oiartzun eta Lizartzako ordezkariak hizlari gisa.



Paradisu galduak izeneko lan honetan pintura akrilikoa erabili du Pablo Donezak. PABLO DONEZA



Emakumeak dira nagusi koadroetan. S. GIRREZABALA



Akuarela erabiltzen du Agirrezabalek. S. GIRREZABALA

IBARRA ▶ GIZARTEA

Ospakizun gehiago Gaztetxearen XII. urteurrenaren harira

Egitarauaz kanpo ekitaldi gehiago izango dela adierazi dute antolatzaileek

M.SOROA

Aurten 13 urte bete berri ditu Ibarako Gaztetxeak. Urteurrena ospatzeko eta Gaztetxearekin aurrera jarraitzeko, hainbat ekitaldi antolatutako egunotan.

Urteurrenarekin hasteko, hip-hop gaua izan zen pasa den larunbatean. Bertan izan ziren, besteak beste, Ordizia edota Hernaniko tadeak, baita Aritz Sound Sistem ere. Herenegun, berriz, Itoitzeko Solidarioak izan ziren Gaztetxean eta

gertuko hitzaldiari esker egoera nolakoa den ezagutzeko parada izan zuten bertaraturikoei. Datozen egunetan, diaporamak, bertso afariak edota musika kontzertuek hartuko dute Gaztetxea, ez baita gutxiagorako, hamahiru urte bete baititu.

Hamahiru urtez tinko

Hasiera guztiak bezala, Ibarako Gaztetxeak ez zuen hasiera erraza izan. Udaleko ordezkariekin izandako «gorabeherek



13 urte pasa dira Ibarako Gaztebea sortu zenetik. HITZA

ez baitzieten gazteen nahia behar bezala gauzatzen uzten». Sorreran lanean arituriko ibararren «gogo eta grinak», ordea, aurrera jarraitzeko «behar beste indar» eskuratzeko ahalmena eman zien. Hala,

Gaztetxea margotu, konpondu eta martxan jarri zuten berehala. Harrezkero, gazteentzako topagune izateaz gain, bai herriari baita herriatik kanpo ere kultur erreferentzi garrantzitsu bilakatu da Gaztetxea.

EGITARAUA ▶

Ekitaldi guztiak Gaztetxean izango dira.

BIHAR

20:00. *Alpamayo (Peru)*
Directa Francesa diaporama emanaldia Gaztetxeko mendizaleen eskutik.

ETZI

21:00. Bertso afaria Amets Arzallus, Xabier Silveira eta Jokin Urangarekin. Txartelak salgai gaur Zubiarekin, ikasleek 8 eurotan, gainontzekoek 15 eurotan.

HILAK 17 (IGANDEA)

19:00. *AHT gelditzea posible da: Susako arana* (Italia) lelopean diaporama izango da.

HILAK 29 (OSTIRALA)

23:00. Norton Klub eta Ezinean taldeen musika emanaldia.

ERAKUSKETA ▶



Beirazko botilak. Gipuzkoako herrietan, 1930. urte aldera hasi ziren gubxi gorabehera ura beirazko botiletan merkaturatzen eta saltzen. E. EZEIZA



Birzizklaketa kanpaina. 1993an, *Berzizklaketa, bai noski* lelopean, Sasieta Mankomunitateak ingurumen-hezkuntzako lehen kanpaina sustatu zuen. E. EZEIZA



Plaztikozko poltsak. 1973an hasi ziren merkaturatzen. Ciclopastek ziurtatzen du Espainian erabili eta botatzeko 16.000 poltsa egin zirela 2005ean, %10a birziklatuz. E. EZEIZA



Etako hondakinak. Erakusketako bigarren atalean Ugarte familiak urtean sortzen dituen hondakin berri ematen du. Beirazko lau edukiontzitan, lau kideko familia batek urtean behar dituen ur-botilak, tetrabrikak, papera, kartoia eta latak erreproduzitzen ditu. E. EZEIZA



Gipuzkoako Hiri Hondakin Kudeaketa Plan Orokorra. Hemen, mankomunitate bakoitzari buruzko panela dago. Informazio horrekin batera, lurralde historikoaren mapa agertzen da, eta bertan, egungo azpiegituren banaketa. E. EZEIZA

Hondakinaren egungo egoera aztergai

Urtarrilaren 13ra arte dago ikusgai Aranburu Jauregian, 'Hondakinak: amesgaiztorik ez' izeneko erakusketa

ESTI EZEIZA

Atzo eguerdian zabaldu zituen ateko urtarrilaren 13ra arte Aranburu Jauregiko *Hondakinak: amesgaiztorik ez* izeneko erakusketak. Bertan izan ziren, Luis Mari Oiarbide Foru Aldundiko Garapen iraunkorrekotako diputatua; Bakartxo Tejeria, Tolosako mankomunitateko burua eta Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea. Egitasmo honen erreflexiorako bide izan nahi du, «hondakinaren beneta-

ko funtsa herritarrei gerturatzeko, eta arazoa nola konpondu dezakegun agertzeko».

Oiarbideren esanetan, «gipuzkoarrok dugun arazo nagusietako bat sortzen ditugun hondakinaren kudeaketa da», horregatik, sentsibilizatu nahi dute jendea, zaborra berreraibili, murriztu eta berzizklatzeko.

Tolosako Mankomunitatea 1998an sortu zen eta 28 herriekin osatzen dute. Herri hauek sortzen zituzten hondakinak kudeatzeko helburuarekin

sortu zen. Egun, berriz, Bakartxo Tejeriak azaldu zuenez, «gestio eta zerbitzu bakar batekin zabor guztiak biltzea lortu nahi da, eta hau laster lortuko da».

Zer ikus daiteke?

Erakusketak bost gai multzo ditu, eta hondakinaren arlo bat lantzen da horietako bakoitzean, orokorretik, zehatzera, iraganetik etorkizunera... Kontuan hartzen dira, halaber,

hondakinaren ekoizpena, tratamendua eta kudeaketa, eta hondakinaren sorreraren eta kudeaketaren bilakaera kronologikoa. Amaitzeko, etorkizunari buruzko prospektiba aurkezten da, eta herritarrak parte hartzea eta ekarpenak egitera gonbidatzen ditu.

Lehenengo gai-multzoan hondakinaren egungo egoera aztertzen da sei minutu inguru irauten duen ikus-entzunezko baten bitartez. Bigarren multzoan berriz, Gipuzkoako familia arrunt batek sortzen duen zabor kopurua kalkulaten da. Hurrengo atalean hondakinaren egungo kudeaketa eta tratamendua agertzen da jolas baten bitartez. Ondorengoan, Nola iritsi gara egoera honetara? galderari erantzuten zaio hiru dimentsiotako elementuekin, objektuekin eta argazkiekin. Azkenik, etorkizunari buruzko prospektiba bat aurkezten da.

GIZARTEA ▶

Ttenttek-en konpartsan izen-ematea

Zabalik dago Ttenttek atsedaldi taldeko inauterietako konpartsan izen emateko epea. Larunbat honetan, hilak 16, 16:30etik 19:00etara egin ahal izango da San frantzisko elizako egoitzan. Baita, astelehenean eta asteartean ere, 18:30etik 20:30era, toki berean.

GIZARTEA ▶

Inauterietako txozna batzordea osatzeko deialdia

Dagoeneko hasiak dira datorren urteko inauterietarako prestatzen. Hori dela eta, txozna batzordean parte hartu nahi duen talde orok, Kultur Etxean egingo den bilerrara joan beharko du etzi, 19:00etan. Bertan izena eman beharko dute, inauterietan txoznaren bat jartzeko asmoa dutenek.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitxaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

VILLABONA ▶ KULTURA

Pirritx eta Porrotxek ikuskizun berria estreinatuko dute

Etzi ikusi ahalko da eta dagoeneko sarrerak agortuta daude



Pirritx, Mari Motots eta Porrotx izango dira ikuskizuneko protagonistak. HITZA

ERREDAKZIOA

Pirritx eta Porrotxek *Mari Motots* emanaldi berria estreinatuko dute Gurea zineman. Aiu-ri aldizkariak antolatuta, bi saio eskainiko dituzte: 17:00etan bata eta 19:00etan bigarrena. Egunean bertan ez dute sarrerarik salduko eta aurrez txartela eskuratu ez duenak, beste aukeraren bat itxaron beharko du ikuskizunaz gozatzeko. Izan ere, bi emanaldi horietarako sarrerak agortuta daude dagoeneko.

Aurreko ikuskizunean, *Maita zaitut* izenekoa, Pirritx eta Porrotxek ijitoengana gerturatu zituzten haurrak eta gurasoak.

IKUSKIZUNA

Ikuspegi alai eta itxaropentsutik pobrezia, lurraren eta ingurugiroaren gaiak jorratzen dituzte

Oraingo honetan, Mari Motots obrarekin, etxerik izan ez eta kalean bizi behar dutenak dira protagonistak: «Badira gure herriko parkean emakume bat eta haren alaba, Mari Motots. Hantxe bizi dira, jolaslekuaren zaindaria. Guk emandakoetatik jaten dute eta janzen dira. Parkeko zakarrontzi handia da

haien etxea». Pirritx eta Porrotx haiengana joango dira eta «parkearen sekretuak» ezagutuko dituzte.

Izen bereko disko berria ere atera dute bi pailazok. «Gure gizartearen gaurkotasan erabatekoa duten errealitateak landu ditugu, sudurgorrien ikuspegi alai eta itxaropentsutik, beti ere: hamazazpi abestitan pobrezia, lurraren eta ingurugiroaren gaiak jorratu ditugu, kolore askotariko doinuak eta mezuak bilduz», azaltzen dute Pirritx eta Porrotxek. Adin guztietako musikariek, abeslariak eta idazleek hartu dute parte Garate estudioarekin batutako proiektuan.

TOLOSA ▶ KULTURA

‘¡Ama quiero ser lehendakari!’ Leidorren

ERREDAKZIOA

Glu-Glu antzerki taldeak bere lan berria emango du etzi Tolosako Leidor aretoan. *¡Ama, quiero ser lehendakari!* antzezlan 20:30ean eskainiko dute. Umorerik ez da faltako obra honetan, taldearen aurreko beste lan guztietan bezala.

Oraingo honetan familia batean gertatzen diren gorabeherak erakutsiko dituzte. Familia horretako kideek iragarri baten berri izango dute, non lehendakari baten bila dabiltzala jartzen duen. Kide guztiek lehendakari izateko bere burua aurkeztuko dute. Sarrerak dagoeneko salgai daude Interneten bidez.

VILLABONA ▶ KULTURA

‘La bici de Ghislain Lambert’ filma, Gurean

ERREDAKZIOA

Irrintzi elkarteak, bere 25. urteurrenaren baitan, beste ekitaldi bat antolatu du biharko. *La bici de Ghislain Lambert* filma eskainiko dute Gurea aretoan, 19:30ean. Txapeliduna izan nahi duen txirrindulari baten gorabeherak kontatzen ditu.

Filmaren ondoren, Felix Ugarte Gipuzkoako Federazioako teknikariak eta bi txirrindularik solasaldia egingo dute. Sarrera doakoa izango da.



Filmaren kartela. HITZA

IBARRA ▶

Egungo egoera politikoari buruzko hitzaldia

Ibarrako ezker abertzaleak deituta, egungo egoera politikoaren inguruan hitzaldia egingo dute, gaur 19:30ean. Subegi elkartearen antolatu dute solasaldia.

ANOETA ▶

Dantza-sokako lehen entsegua gaur, Edurkan

Anoetarrok Auzolanean herri plataformak antolatutako dantza-sokaren lehenengo entsegua gaur egingo dute, 19:30ean hasita, Edurkako pabiloietan.

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
Lapuerta - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Alegia. Eraikuntza berriko pabiloia. 350m2etatik hasita.

Anoeta. 90 m2ko etxebizitza salgai, kanpora begira eta berritu beharrekoa.

Belauntza. Bifamiliarra, bi solairurekin eta 270 m2ko lursailarekin.

Belauntza. Pabiloia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

Berastegi. Famili bakarreko etxea salgai, 4.000 m2ko lursailarekin.

Berastegi. Bi solairuko pabiloia

alokairuan, 700 m2 solairu bakoitzeko.

Berrobi. Behe solairuko etxebizitza. 50 m2koa. 117.200 euro.

Irura. San Migel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.

Irura. Eraikuntza berriko etxebizitza eta apartamentua salgai garaje eta trasteroarekin.

Tolosa. Errementari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua.

2 logela, 24 m2ko egongela, bainugela eta sukaldia.

Tolosa. Errementari kalean, 3 logelako atikoa. Egongela, sukaldia, eta bainugelarekin. Eraberritua.

Tolosa. Korreo kalea, 2 logelako etxebizitza salgai. Eraberritua. Prezio interesgarria.

Tolosa. Santa Klara, 90 m2ko etxebizitza salgai. 4 logela, sukaldia, egongela eta bainugelarekin.

Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko

etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa. **Tolosa.** Ugarran Goena, berritu

beharreko baserria salgai. 3 solairu, 110m2 bakoitzeko.

Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritua.

Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, ordaintzeko erreztasunekin. 9.480 eurotik aurrera.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Maituna zaharra, 15 garaje berri eta itxiak, 30m2tik aurrera.

Karga jasogailuekin sartzeko. **Eraikitzeo.**

METEOROLOGIA ▶

Eguraldia neurtuz

Leitzako Luisen Bordakoak eta Aresoko Otsoaneakoak 20 urte inguru daramatzate egunero eguraldiaren gorabeherak neurtuz



Luisen-Bordako meteorologi txabola txikia; bertan Pakita Gogorzak egunero-egunero lan egiten du, tenperatura neurtuz, besteak beste. N. GARZIA

PAKITA GOGORZA ▶ METEOROLOGIA ZALEA

«Hartu dugun tenperaturarik baxuena -10 gradutakoa izan da»

Euria, hotza, beroa, haizea, ihintza, langarra, izotza, kazkarabarra... Eguraldiaren adierazpen ezberdinak dira, neurrigabeak, baina eguraldia neurtzeko tramankulurik ere badago. Honen inguruan Luisen-Bordako Pakita Gogorzak asko daki.

Familia barruan zeintzuk ibiltzen zarete lan honetan?

Ni eta nire erraina, Ixabel. Egun batean batek, beste batean, besteak... biak aritzen gara.

Egunero hartzen dituzun datuak ordu beretsuan hartzea komeni al da?

Bai, goizeko 09:00ak aldera hartu eta bidaltzen ditugu.

20 urte inguru daramatzazu lan hau eginez. Zer ikasi duzu?

Termometroa begiratu gabe zer tenperatura egiten duen jakiteko gai naiz. Adibidez, gaur goizean, begiratu gabe, atzo zer tenperatura zegoen asmatu dut. Seguru ez, baina alde-aldera asmatzen dut.



N. GARZIA

Hainbeste urteren buruan, eguraldia igertzeko gai al zara?

Ez, eguneroko datuak hartu besterik ez dut egiten. Guk erabiltzen ditugun datuekin ezin dugu horrelakorik asmatu. Eguraldia igertzea beste batzuei dagokie.

Eguraldi aldaketaren eragi-

nik nabaritu al duzu egunero jasotzen dituzun datuetan?

Honen inguruan asko hitz egiten den arren, ez gehiegi.

Aurtengo udazkena nolakoa izan da zure ustez?

Lehorra, ez du batere euririk egin.

Azkeneko urteetan udan bero gehiago egiten duela esaten dute. Aurten, adibidez, nolakoa izan da?

Aurten baino bero handiagoak egin ditu. Duela 3 urte, Leitzako festetan bero ikaragarria egin zuen. Tenperatura asko igo zen. Gauean ere ez zuen freskatzen, 20-22 gradu egiten zituen, ez zen normala.

Garta-denboren bitartez eguraldiari antzik hartzen al diozu?

Ez, horrelakoak ez ditut kontutan izaten.

Hartu duzun tenperaturarik baxuena zein izan da?

Hemen hartu dugun tenperaturatik baxuena -10 gradutakoa izan da. ◀

NAIARA GARZIA

Luisen-Bordako Pakita Gogorzak 20 urte daramatza goizero eguraldiaren gorabeherari erreparatu. Tenperatura, euria, haizea, izotza, elurra eta goizeko ihintza izaten ditu egunero aztergai. Goizero bezperan izan den tenperaturarik altuena, gauean izan den baxuena eta momentukoa apuntatzeaz gain, beste hainbat lan ere hartzen ditu: euria egin badu, zenbat litro egin dituen idatzi, haizea badabil, ze motatakoa den apuntatu...

Izotza, ihintza eta elurra neurtzea zaila dirudien arren, elurra egiten duen bakoitzean, Gogorzak hau urtu eta neurtu egiten du, baita izotza ere: «kartoi bat daukagu zerrendatze batekin eta hori erabiltzen dugu». Datuak hartu eta Nafarroako Gobernura bidaltzen ditu gero. Lehenago egunero gobernutik deitzen bazuten ere, orain horretarako tresna berezi bat daukate. Aparatu automatiko honen bitartez informazioa zuzenean bidaltzen dute.

1986a baino lehen Basa-Kabin hartzen zuten informazio hau, «bertako morroi batek eramaten zuen». Bera zahartu egin zen eta Luisen-Bordako

eman zieten lan hau egiteko aukera. «Guk baiezkoa eman genion eta ordutik egunero egiten dugu lan hau». Eguneroko jarraipen honetaz gain, hilaren bukaeran datu guztiak biltzen dituen beste txosten bat bidaltzen dute. Luisen-Bordan biltzen duten informazioa gobernuak jaso eta besteak beste, Diario de Navarra egunkarian agertzen da.

Eta nolakoa da, bada, Luisen-Bordako meteorologi estazioa? «Baserrri ondoan txabola txiki bat daukagu. Bertan termometroak daude, euria sartzeko potetxo bat eta beste hainbat tramankulu».

Berez, negua oraindik iritsi ez bada ere, aspaldi hasi zen eguna moztzen, baina honekin batera aurten izotzak ez dira iritsi. Neguko egun normal bateko tenperatura altuena 14-15 gradu ingurukoa bada eta minimoa 4-5ekoa, aurten tenperaturak epel xamarrik izandu dira. Gogorzak azaldu duen bezala, «gaur goizean altuena 12koa izandu da eta gutxi, berriz, 7koa. Euria ere gutxi egin du. Tenperaturak horrelaxe dabilta egun hauetan». Azaroaren 30ean jaso zuten udazkeneko tenperaturarik baxuena: 4 gradu egin zituen. «Goizalde hartan izotz pixka bat egin zuen, baina bestela ez du batere egin». Heritik 4 kilometrotara dagoen baserrri honetan tenperaturak normalean herrian baino frexkoxeagoak izan ohi dira, baina egun batzuetan herrian baino giro epe-lagoa izaten dute. «Hemen hegoa dabilenean herrian frexkoago egiten du».

Otsoaneako behatokia

Areson ere bada beste meteorologi estazio txiki bat Otsoanea baserrian, 524 metro tara. 1986an ipini zuten eta ordutik egunero lan bera egiten du Ixabelek, goizero, eguerdiero eta gauero: «(minimoa eta maximoa hartzen ditut, haizeari eta inguruko mendietako eguraldiari erreparatu, argi edo lainotsu dagoen...)». Otsoanea baserritik txabola txiki horretara dauden 60 metroak egunero egiten du, baita izotza ere: «kartoi bat daukagu zerrendatze batekin eta hori erabiltzen dugu». Datuak hartu eta Nafarroako Gobernura bidaltzen ditu gero. Lehenago egunero gobernutik deitzen bazuten ere, orain horretarako tresna berezi bat daukate. Aparatu automatiko honen bitartez informazioa zuzenean bidaltzen dute.

Aurtengo udazkena lehorra izandu dela azaldu du Ixabelek, «oso onan», eta epela: «badirudi udaberriari gaudela, eguraldia oso nahasita dabil, euria egiten du, gero beroa, lanbroa, hotza...». Inoiz bertan hartu duen tenperaturarik baxuena -16 gradutakoa izan da, baina aurten, hotz horiek oso urrun daude, oraindik ez baitu izotzik egin: «garai honetan elurra eta guzti egiten du mendian, eta orain, berriz, eguraldia asko aldatu da».

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Amezketeta. Santa Luzia Eguna dela-eta Ugarteko eta Amezketako emakume guztiei zuzenduriko afaria antolatuta du Amezketako Udalak, jubilatuen elkartearen, 20:00etan.

Asteasu. Karmel Leizaolak Vietnam, Laos eta Kanboiari buruzko proiektioa emango du, Asteasuko Mendi Astearen baitan, 20:00etan Kultur Etxean.

Ibarra. Kulturarteko Jardunaldien baitan, *Mendebaldeko Afrikara bidaiari* buruzko diapositiba emanaldia Fernando Rojoren eskutik 19:30ean Kultur Etxean.

Tolosa. Ikasleei buruzko hitzaldia EHUK antolatuta, 18:30ean, Kultur Etxean.

Tolosa. 18:00etatik aurrera, Errotan, Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, 5 eta 8 urte bitarteko haurrentzat izango da emanaldia.

Txarama. Elkarteak loteria jarri du eskuragarri bazkideentzako. Jasotzeko epea hilaren 21ean amaituko da. Orduetgia, astean zehar 19:00etatik 20:00etara eta asteburuan 13:00etatik 14:00etara.

ZINEMA

Alegia. Gaztetxean, 21:30ean zine-klub saioa: *La pesadilla de Darwin* filma ikusgai, Gaztebearen XIX. urteurrenaren baitan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Etxebeite, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Artelan solidarioak

ZIZURKIL ▶ Aste honetan zehar Atxulondo kultur etxean ikusi eta erosi daitezke hainbat artistek egindako lanak, '18/98 auziko' inputatuei laguntzeko



18/98 auziko eskualdeko inputatuei laguntzeko erosgai dauden artelanetako batzuk. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Hainbat artistek beren lanak utzi dituzte 18/98 auziko eskualdeko inputatuen aldeko merkatu txikian saltzeko. Horietako bat da Ander Beresta preso zizurkildarra. Berarekin batera eskualdeko hainbat lanak daude salgai: Ainhoa Zunzunegi, Yoli Diez, Patxi Otegi, Irati Lizarraga eta Izaro Lizarraga zizurkildarrenak; Jon Iñaki Ormazabalak Villabonan zuzentzen duen taila tailerren ikasleena eta Jokin Txapartegi asteasuarrarenak.

Koadroak, tailak, eskulturak... erosi daitezke, salneurri ekonomikoetan. «Helburua ahal den artelan gehienak saltzea da». antolatzaileek diotenez. Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean daude ikusgai artelanak. 16:00etatik 20:00etara, ostiralera arte. Erosteke asmoa duenak Kultur Etxeko aretoan bertan dagoen zerrenda batean bere izena, telefonoa eta erosi nahi duen artelana zehaztu behar ditu.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ekhi Arrieta Kortajarena (Amasa). Gaur urtebete. Muxu handi bat Unai, lehengusuak eta ebekoen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behe
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



jantzi

hitza ren

jertseak

HITZAren egoitzetan salgai